

Ongietorria

ETCHEBEST, Mixel
Mauleko aüzapeza

Eüskaltzaindiako eüskaltzainbürü den Andres Urrtia jaunari eta heben diren Eüskaltzain güzier (eta memento egiazki ahalkegarria (lotsagarria) da enetako), honki jin beroa Xiberoan eta Maulen. Maulerako bidea lüze izan da züentako zombaiten goiz hontan, eta eskertzen zütüet ere horregatik.

Nolaz ez keinü berheizi bat egin bi Eüskaltzain xiberotarrer direnak Txomin Peillen eta Jean-Louis Davant!

Bai eta ere, heben diren haütetsi, ardüradün, kargüdün, eüskaldün oroer, honki jin Xiberoan eta bereziki heben Mauleko Maule Baitha zinegela hontan.

Xiberoa eta Mauleko herriek gozatzen düe egün, Eüskaltzaindiari batzarri egitearekila emanik izan zaien parada. Lehenik Battittu Coyos eta gero Aurelia Arkotxa, Maulerat jin dira egünaldi honen gureki prestatzeko. Eta ontsa ohartü gira zer gertakari ezohizkoa zatekean gure herriarentako.

Beste gertakari bat ere badügü Maulen egün berean, hau da Xiberoan Eüskaraz Bai Egüna. Bi gertakarien üztartzea honartü dü Eüskaltzaindiak, eta uste düt bi gertakariak bata bestea hazten düela. Alde batetik, Xiberoan Eüskaraz Bai Egünak, Eüskaltzaindiak ekarten beiteio beharrezkoa den ofizialtarzün marka, eta bestalde, Eüskaltzaindiak xiberotar gizarteari edo jentarteari, bere lanen eta ebilmoldearen hobeki erakusteko parada beitü, heben izatez.

Izena badakigü, bena züen ikustea eta entzütea beharra badügü eta hortaz zinez egarri gira.

Eta denek dakigü holaxe ofizialatü eta indartü beharra düan eüskarak Iparralde hontan, eta bereziki Xiberoan. Damürik, aski seinala badügü erraiten deiküena zer egoeretan den xiberotar eüskalkia, ohartzen girelarik zonbat gaitz den maskarada elibaten antolatzea eüskaradün gazte eskazagatik, bena bai eta ere, zer problema baden pastoralak folklorealat lerratzetik etxekitzeko!

Eüskaltzaindia berme azkarra eta beharrezkoa da ofizializatzte bide hortan.

Ürrentzen düt batzarri hau agur bero bat lüzatzez mementoan gordatzen deiküzüen gizon bati, erran nahi düt Battittu Coyosi, Mauleri, bere sorterrriari, pentsatü beitü bere kargü-hartze ofizialarentzat, eta gisa horrez Eüskaltzaindiaren errezebitzeko parada eman beiteikü. Gehit niro erranez ohore handia dela Mauleko herriarentako ere, Eüskaltzain baten kontatzea bere semeetan orai! Eskerrik hanitx Mauletar semea den Battittu Coyos jaunari!

Ordüan, bihotz zolatik, ene baitatik eta Xiberoaren izenenan, batzarri hon eta ohore Eüskaltzaindiari, eskerrik hanitx eta egünaldi hon eta beroa oroer.